

PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

Txaparrene pasealekuaren zoladura berritzeko proiektua onartuta

Ekialdeko Barrutiaren Batzarrak sustatutako proiektua da, eta milioi bat euro inguruko aurrekontua du

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, Txaparrene pasealekuko zoladura berritzeko lanak egiteko proiektua. Ekialdeko Barrutiaren Batzarrak sustatutako proiektua da eta Udalaren Bide Publikoetako zerbitzuak idatzi du. Bere aurrekontua 999.692 eurokoa da eta 6 hilabeteko exekuzio epea du.

Donostiako alkate Eneko Goiak adierazi du, zoladura berritzeari esker oinezkoen pasealekua hobetuko dela, eta gainera, auzotarren eskaerari erantzunez, eremuaren segurtasuna hobetuko duen bidegorria sortuko dela. Halaber, bertan dauden hainbat zerbitzu hobetu ahal izango dira.

Zoladura berrituko da Intxaurrendoko Renferen geltokiaren eta Garroko zubiaren inguruan dagoen tunelaren artean. Zoladura nagusia galtzada-harriaz osatuta egongo da, baina indartu egingo da izan ditzakeen kargei eusteko. Era berean, oinezkoen pasealekutik bereizita egongo den bidegorria sortuko da.

Halaber, hainbat zuhaitz berrituko dira, egun dauden kolektoreak berrituko dira, baita argiteriaren hoditeria ere, eta kirol kantxetarako argiteria bereiziko da.

Bretxa

Tokiko Gobernu Batzordeak hasierako onarpena eman dio Bretxako HBPB-ren (PERU delakoa) Xehetasun Azterlanari. Eta azterlan honen helburu da, sotora sartzeko eraikinaren eta Bretxako eraikinaren atzealdean proiektatutako markesinaren – bertan baseritarren postuak jarriko dira – lerroakadurak eta bolumetria aldatzea.

Sotora sartzeko eraikinak gehienez 8 metroko zabalera izango du, eta markesinak, aldiz 6 metroko zabalera. Era berean, markesinak 3,50 metroko altuera librea izango du eta markesina itxi egiten denean fondoa gehienez 6 metrokoa izango da. Halaber, markesinaren luzera Bretxako eraikinaren aurrealdearen berdina izango da, eta aurrealdetik 20 zm aldentuta egongo da, markesina ixteko elementuek aurrealdea ez ukitzeko.



PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

Next Funtsak

Tokiko Gobernu Batzordeak adostu du, “Donostiako euri-uren ta erreken ingurumenkudeaketa jasangarria” egiteko emandako laguntza onartzea. Guztira 1.590.778 euroko laguntza jasoko du Udalak, hau da, proiektuak duen kostuaren %95 (onartutako proiektuak 1.674.504 euroko aurrekontua du).

Era berean, Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du gainerako %5ari dagokion udal-ekarpena, hots, 83.725 euro.

Dirulaguntza Next Generation funtsetatik dator eta bi helburu ditu: lehena, bi urmael ireki eitea Miramongo parkean, bertan sortzen diren euri-uren zati bat jasotzeko, Anoetako ubidera isurtzen diren euri-uren emaria eta bolumena murriztuz, eta beraz, Amara Auzoan uholde arriskua gutxituz.

Bigarren helburua, berriz, honakoa da: Ibaetako Haltzadian, landaredia leheneratzea eta uraren kalitatea hobetzea, eta Morlanseko ubidea leheneratzea, izadian oinarrituriko soluzioaren bidez, ibai ekosistemak leheneratuz.

